

# Inkesta Soziolinguistikoa

## Nafarroako datuen azterketa

Euskararen Gizarte Erakundeen **Kontseilua**  
eta **Euskal Konfederazioa**

*2008ko uztailean*



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN  
**KONTSEILUA**

# Inkesta Soziolinguistikoa: Nafarroako datuen azterketa

Euskararen Gizarte Erakundeek IV. Inkesta Soziolinguistikoaren Nafarroako emaitzei buruzko irakurketa hau egin dute:

<h2>Hizkuntza gaitasuna</h2>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• % 11,1 elebidunak dira</li> <li>• % 7,6 hartzaileak dira</li> <li>• % 81,3 erdaldun elebakarrak</li> <li>• 15 urtez % 1,6ko hazkundera egon da.</li> <li>• Elebidunen hazkundera gazteenetatik ari da zabaltzen. Elebidun gutxien zaharrenean multzoan dago.</li> <li>• Izugarriko desberdintasunak daude legeak ezartzen dituen zonaldeen artean: Euskaldunean elebidunak % 60,1 dira, mistoan % 8,3 eta ez euskaldunean % 1,9.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oso desoreka handiak daude zonaldeen artean artean. Bertan ikus daiteke Vasuenceren legearen zonifikazioaren eragin kaltegarria elebidunen banaketan. Izan ere, denbora aurrera joan ahala gero eta handiagoak dira zonaldeen arteko desberdintasunak.</li> <li>• Euskarak legez ezin du zonalde osoan garatu eta hori herrialdea linguistikoki zatitzen ari da.</li> </ul> <p>Hartu beharreko neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zonifikazioa ezartzen duen legea aldatu behar da eta euskarari gaztelaniak duen estatus berbera eman behar zaio herrialde osoan.</li> <li>• Euskalduntzea lortzen duten ereduak hedatu behar dira Hezkuntza Sistema osora eta herrialde osora belaunaldi berriak osorik euskaldundu ahal izateko.</li> <li>• Epe onargarri batean belaunaldi berriak osorik euskalduntzea lortuko duen Sistemarako oinarriak jarri behar dira arreta berezia eskainiz irakasle eta bestelako langileen euskalduntzeari.</li> <li>• Sistema bera euskalduntzeko bitartekoak jarri behar dira. Langile berrien kontratazioan euskararen ezagutza bermatuz eta gainerakoei derrigortasun data ezarriz.</li> <li>• Helduen Euskalduntzeari izaera estrategikoa aitortu behar zaio,</li> </ul>

	doakoatasuna bermatu eta pertsona helduei lantokietan erraztasunak eman behar zaizkie euskara ikasteko.
--	---

<h2>Taldean ezaugarriak hizkuntza gaitasunaren arabera</h2>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elebidunak eremu euskaldunean eta mistoan bizi dira.</li> <li>• Erdiak baino gehiagok euskara dute lehen hizkuntza.</li> <li>• Erdiak baino gehiagok bi gurasoak elebidunak dituzte. Hala ere, laurdenak baino gehiago guraso erdaldunak.</li> <li>• Heren batek euskaraz egin ditu oinarrizko eta bigarren mailako ikasketak</li> <li>• Elebidun hartzaile gehienek seme-alabek euskaraz dakite.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Banaketa geografikoa argi ikusten da hemen. Vascuenceren legeak zatitu egin du herrialdea bi Nafarroa desberdin sortuz.</li> <li>• Hala ere, euskararekin harremana duten denek euskara sustatu nahi izateaz aparte seme-alabak bide beretik eraman dituzte.</li> </ul> <p>Hartu beharreko neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskara erabiltzeko eta ikasteko eskubidea herrialde osora zabaltzeko behar da legea aldatuz eta euskarari estatus egokia eskainiz.</li> <li>• Euskararen ezagutza eta erabilera beharrezko bihurtu behar da hizkuntza politika eraginkor baten bitartez.</li> </ul>

## Gaitasun erlatiboa

- Euskal elebidunak % 26,2
- Oregatuak % 29,6
- Erdal elebidunak % 44,2

- Inkesta soziolinguistikoa oso lausoa da multzoak egiteko unean. Normalizazioaren ikuspuntutik lehenengo bi sailkapenak dira interesgarrienak hizkuntza sortzeko aukera dutelako. Erdal elebidunek euskara erabiltzeko arazoak dituzte gaitasun faltak eraginda.
- Multzorik handiena erdal elebidunena izatea kezkarria da. Horiexek dira erabiltzeko arazoak dituztenak eta, ondorioz, hainbeste izateak beste neurri batzuk eragozten ditu.
- Euskal elebidun gehienak eremu euskaldunean bizi direnez, haien eragina ez da herrialde osoan nabarmentzen.
- Erdal elebidunak, bestalde, gehiengoa dira gazteenen artean eta horrek etorkizun hurbilean eragina izango du.

Hartu beharreko neurriak:

- Hizkuntzaren kalitateari garrantzia handia eman behar zaio ikaste prozesuan. Horretarako eredu egokiak eskaini behar dira eta batez ere, erabiltzeko aukera errealak sortu behar dira hizkuntza politika eraginkor baten bitartez.
- Bai Helduen Euskalduntzean bai Hezkuntza Sistematan arreta berezia jarri behar zaio kalitateari. Horretarako Administrazioak baliabide egokiak bideratu beharko lituzke.

## Hizkuntzaren transmisioa

- |   |  |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehen hizkuntza euskara % 6,4</li> <li>• Euskara eta gaztelania % 3,2</li> <li>• Lehen hizkuntza frantsesa % 90,4</li> <li>• Eremu euskaldunean ia erdiak (% 47,9) euskara izan du lehen hizkuntza.</li> <li>• Nafarroako elebidunen herenak (% 33,8) gaztelania izan du lehen hizkuntza. Horietako askok Euskaltegietan ikasi dute euskara.</li> <li>• Bi gurasoak euskaldunak direnean % 82,6k euskara jaso du haiengandik.</li> <li>• Bikotean kide batek ez dakienean euskara jaso dutenak % 2,6 dira.</li> <li>• Esan daiteke bikote euskaldun ia guztiek euskara transmititzen dietela seme-alabei gaur egun.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Oso kontuan hartzeko datua da bi gurasoak euskaldunak izanik lortzen den transmisio maila handia. Horrek agerian uzten du belaunaldi berriei, beren osoan, kalitatezko euskara eskaintzearen beharra, etorkizuneko gurasoak izango baitira. Agerian uzten du ere, dentsitate handiko eremuan, euskaldunean, alegia, lana ongi eginez gero aukera handiak ditugula transmisio bitartez normalizazioan aurrera egiteko.</li> <li>• Gurasoetariko bat euskalduna ez denean lortzen den transmisio-tasa espero baino apalagoa iruditzen zaigu.</li> <li>• Bestalde, bikote mistoetan “euskara bakarrik” transmititzen dela esatea nahiz eta kopuru txikian izan metodoaren errorea dela uste dugu.</li> </ul> |
|---|--|

Hartu beharreko neurriak:

- Euskalduntze alfabetatzeak lehentasun estrategikoz lan egin beharko luke bikote mistoekin bereziki, eremu euskaldunean eta mistoan.
- Belaunaldi berriak osorik eta kalitatez euskaldundu beharko lirateke Hezkuntza Sistemak.

## Irabaziak eta galerak

<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehen hizkuntza euskara izan arren, euskara galdu du, erabat edo partzialki, 11.700 pertsonak.</li> <li>• Lehen hizkuntza gaztelania izanik 19.000 pertsonak euskara eskuratu dute.</li> <li>• Euskaldun berrien proportzioak gora egin du 50 urtetik beherako adin talde guztietan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kopuru horiek nabarmen handitu behar dira epe onargarrian euskara normalizatu nahi badugu.</li> </ul>
--	--

## Euskara irabazi dutenen ezaugarriak

<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gehienak gazteak dira.</li> <li>• Irabazi dutenen laurdena (% 26) 35 eta 49 urte bitarteko multzoan dago</li> <li>• Gehienak, % 76 errazago moldatzen dira gaztelaniaz.</li> <li>• Hiru laurdenak (% 72) eremu mistoan bizi dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Datuetatik ondorioztatzen da helduen euskalduntze alfabetatzeak ahalegin handia egin duela 35 – 49 urte artekoek ez dutelako eskolan ikasi.</li> <li>• Kezkatzekoa da hala ere, euskara jaso badute ere gehienek hobeki hitz egiten dutela gaztelaniaz. Horrek eragin zuzena izango du erabileran.</li> <li>• Adierazgarria da bestalde, gehienak mistokoak izatea. Izan ere, bertan aukera dago ikasteko, ez ordea, eremu ez euskaldunean. Beraz, hori ere legearen ondorioa da.</li> </ul> <p>Hartu beharreko neurriak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan berezia egin beharko litzateke euskara irabazten dutenen hizkuntza kalitatea hobetzeko.</li> <li>• Legea aldatu behar da nafar guztiek izan dezaten euskara irabazteko aukera.</li> </ul>
---	---

## Erabilera

- % 5,6k euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen du.
- % 90,3k ez du erabiltzen gaztelania besterik.
- Erabilera ez da ia aldatu ehunekotan.
- Alde handiak daude eremu batetik bestera. Euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutena eremu euskaldunean % 46,5 dira, % 1,8 mistoan eta % 0,3 ez euskaldunean.
- Hala ere, eramu euskaldunean erabilerak izanduen bilakaerari erreparatuz duela 15 urtekoaren berdintsua da.
- Lan egiten dutenen artean gutxiago dira nagusiki euskaraz hitz egiten dutenak.
- Euskara gehien erabiltzen dutenak euskal elebidunak dira % 93,1 gaztelania baino gehiago edo gaztelania beste.
- Oreatuen artean, % 58,7
- Erdal elebidunen artean % 16,2k gaztelania baino gehiago edo gaztelania beste. % 47,2k erabiltzen dute eguneroko bizimoduan.
- Duela 15 urte nagusiki euskara erabiltzen zuten elebidunen proportzioa gaur egungoa baino handiagoa zen. (%38,7 vs % 28,8)
- Banku edo kutxetan, anbulatorioan, udaletxeko zerbitzuetan denek edo ia denak dakitenean % 80k baino gehiagok euskara erabiltzen dute.

- Guztiz logikoa da erabilera ez handitzea ezagutza ere ez delako nabarmen handitu.
- Kalitatezko elebidunak biltzen diren eremuan erabilera egokia da baina, gainerako eremuetan dentsitatea txikiagoa izateaz aparte aukerak ere urriagoak dira.
- Bestalde, azpimarratu behar da hizkuntza baten erabilera ez dela pertsonen arteko solasa bakarrik. Etiketak, publizitatea eta idatzizko milaka euskarri irakurtzea ere erabilera bada ere horiek ez dira kontuan hartzen.
- Hala ere, kontuan hartu behar da euskara ofiziala duen eremua konparatzen badugu EAEko herrialderik euskaldunenarekin ohartuko gara baia ezagutza baita erabilera ere handiagoak direla.
- Bereziki kezkgarria da ikustea nagusiki euskara erabiltzen duten elebidunen kopurua jaitsi egin dela nabarmen. Arrazoietan garrantzi handikoa da UPNren gobernuak erabiltzeko aukerak murrizteko xedez erabili duen hizkuntza politika. Izan ere, euskaldunaren ingurune hurbilean aurkitzen ditugun erabilera tasak oso altuak dira.

Hartu beharreko neurriak:

- Erabilera areagotzeko lehenago ezagutza unibertsalera pauso sendo eta azkarrak eman behar dira.
- Euskara beharrezko bihurtzen duten erabaki politiko estrategikoak hartu behar dira.
- Erabilera idatzizkoa era badela ulertu behar da eta neurri politiko eraginkorrak hartu behar dira euskararen presentzia bermatzeko.

## Euskararen sustapena

- |  |   |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"><li>• Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza gaitasunarekin.</li><li>• Biztanleen % 37,7 euskararen erabilera sustatzearen alde daude, % 28,1 ez alde ez kontra eta % 34,2 kontra.</li><li>• Duela 15 urte alde % 21,6 eta sustatzearen kontra % 51,8</li><li>• Biztanle gehienei ezinbestekoa iruditzen zaie haurrek euskara ikastea (% 43) eta Administrazioan sartzeko euskara jakitea (% 53)</li><li>• Administrazioan sartzeko euskara jakin behararen aurrean elebidunen % 89 alde dago eta erdaldun elebakarren % 46 ere, alde.</li><li>• Biztanleen % 73k etorkizunean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzatekeela uste dute.</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Euskarak Nafarroan duen irudi gatazkatsua ez dator bat hemen plazaratzen diren iritziekin eta argi uzten dute beste politika bat posible dela.</li><li>• Urte hauetan herri mugimenduaren eskutik zabaldu diren euskararen aldeko mezuek lortu dute sektore zabaletan jende gehiago egotea euskara sustatzearen alde.</li></ul> |
|--|---|

## Ondorio orokorrak:

1. 15 urteko epean lortu ahal izan den aurrerakuntzaren proiektzioa etorkizunera egiten badugu ohartuko gara erritmo onartezina dela euskararen normalizazioa nahi badugu. 15 urtez % 1,6ko hazkundera izan badugu, 834 urte beharko genituzke ezagutza unibertsalera iristeko.
2. Vasueneren legeak indarrean egon den 20 urte hauetan Nafarroa erabat zatitu du linguistikoki eta errealtate orekatu eta integratua izan beharrean, gatazka eta zatiketa izango dugu etorkizunean bi komunitate desberdin sortu baitira geografikoki oso banatuak.
3. Urte hauetan guztietan, herri-mugimenduak egin duen lan eskerga ongi islatzen da datuotan. Ezagutzari dagokionez, Helduen Euskalduntze Alfabetatzearen lanez eta Hezkuntza Sistemaren bitartez azken 15 urteotan lortutakoa oso agerikoa da.
4. Erabilerari buruz zabaltzen den mezua guztiz okerra dela adierazten dute datuok. Izan ere, aukerak dituen euskaldunak oso kopuru altuetan erabiltzen du euskara. Aukera faltan dago arazoa eta aukera horiek ez baditugu, hizkuntza politikaren desegokitasunaren adierazlea da.
5. Euskararen normalizazioa azkartu behar da eta horretarako honako neurri hauek hartu beharko lirateke:
  - Euskararen estatusa gaztelaniak duenarekin berdindu behar da.
  - Vasueneren legea aldatu beharra dago eta euskaldunon hizkuntza eskubideak babestuko dituen corpus juridikoa osatu behar da
  - Hizkuntza politika eraginkorra abiatu behar da.
  - Hezkuntza Sistemak belaunaldi berriak osorik euskaldundu behar ditu. Goi mailako ikasketen eskaintza euskaldundu behar da.
  - Administrazioa eta bere zerbitzuak euskaldundu behar dira. Euskaldunak kontratatzea, euskarazko zirkuituak sortzea eta euskalduntzeko epeak zehaztea dira jorratu beharreko bideak.
  - Alor Sozioekonomikoa euskalduntzeko bide eraginkorrak jarri behar dira.
  - Berdin gizar-teko beste alor batzuetan ere, aisia, kirola, hedabideak, kultura...
  - Diru-baliabideak, administratiboak eta giza baliabideak nabarmen handitu behar dira.
  - Helduen euskalduntzeari izaera estrategikoa aitortu behar zaio

Neurri horiek hartuz gero, euskararen normalizazioak dagokion erritmoa hartuko du. Zeregin horretan sor litezkeen zailtasunak gainditzeko Kontseilua elkarlanerako prest agertzen da.